



TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2020KO ABUZTUA

Abuztua, prezipitazioari dagokionez, ohikoa izan zen orokorrean eta lehorra zenbait tokitan. Tenperaturari dagokionez, oso beroa izan zen kantauri isurialdean eta beroa Mediterraneo isurialdean. Nolabait esateko, EAerako udako ohiko hilabetea izan zen. Bero handiko bi egoera izan ziren eta ekaitz ertain-handiak bota zituen zenbait egunetan. Ezohikoena, beharbada, hilabete amaierako goitik beherako eguraldi-aldaketa izan zen; iparraldeko sarrera markatuak udazkenara eraman gintuen, sasoi hartarako tenperatura hotzekin eta Gipuzkoako zenbait puntutan zaparrada oso handiekin.

Prezipitazioa

Abuztua ohikoa izan zen, baina ñabardurekin. Adibidez, kantauriko bailaretan lehorra izan zen eta Arabako Errioxan hezea. Hilabetean pilatutako kantitateen banaketa neurri handi batean ohikoa izan zen, euri gehien Gipuzkoa ipar-ekialdean egin zuen (Eskas 195.9 mm, Oiartzun 129.7 mm, Berastegi 125 mm, Behobia 116.7 mm) eta maximo sekundarioak kostaldean eta Bizkaia barnealdeko mendietan izan ziren (Matxitxako 96.3 mm, Muxika 74.7 mm, Oiz 72.7 mm, Cerroja 72.1 mm, Urkiola 71.6 mm). Euri gutxien egin zuen tokiak ez ziren ohikoak izan, izan ere Arabako Kantauriko partea eta Arabako bailara izan ziren lehorrenak (Saratxo 19.2 mm, Zambrana 26 mm, Tobillas 26.4 mm).

Euri-egun kopurua (≥ 1 mm) 5 eta 10 bitartekoa izan zen gutxi gorabehera, 5 Arabako bailaretan eta 10 Donostialdean, hilabete osoan sakabanatuta. Hilabetearen hasieran ez ziren kantitate handiak pilatu, baina ekaitz ertain-handiak izan ziren, egoera ezberdinek eraginda, eta hilaren 29an 70 mm baino gehiago utzi zituzten.

Hilaren 7an, udako ohiko lehenengo ekaitz egoera gertatu zen. Egun eguzkitsu eta bero baten ostean Sistema Iberikoan ekaitz lerro bat sortu zen. Ekaitz-lerroek bereziki EAeren hegoaldean eragin zuten eta Arabako Errioxan zaparrada handiak bota zituen (Páganos 16 mm/h); horrez gain, une batzuetan haize-bolada oso gogorak neurtu ziren.

Hilaren 11n, zaparrada ertain eta trumoitsuak bota zituen Mediterraneo isurialdean, kasu hartan penintsulan goi-geruzetan askaturiko depresio batek eraginda (Páganos 14.1 mm/h, Navarrete 12.4 mm/h, Subijana 12.1 mm/h). Hurrengo egunean depresio askea Kantauri itsasotik irten zen, ondorioz, zaparradak mardulagoak eta orokorragoak izan ziren EAEn (Matxitxako 16.9 mm/h, Punta Galea 11.9 mm/h, Abusu 11.7 mm/h, Kanpezu 9.8 mm/h). Toki askotan txingorra ere egin zuen. Horrez gain, tximistek hainbat sute eragin zituzten Ermuan, Galdakaon, Zamudion eta Artxandako mendi magalean.

Hilaren 21ean, Ellen izeneko eta Irlanda mendebaldean zentratutako zirkulu extra-tropikalari loturiko fronte hotz batek EAE zeharkatu zuen zaparrada konbektiboak



eraginez, bereziki Araba erdialdean eta Gipuzkoan (Behobia 16 mm/h, Zizurkil 9.9 mm/h, Oiartzun 9.8 mm/h, Subijana 8.4 mm/h, Abetxuko 6.2 mm/h).

Hilaren 29a hilabeteko egunik euritsuena izan zen. Iparraldeko adbekzio indartsu baten eraginpean gertatu zen, sasoi hotzean ohikoagoa dena, eta Gipuzkoa ipar-ekialdean eta Enkarterrietan 30 mm baino gehiago jaso ziren, zenbait lekutan 70 mm baino gehiago (Eskas 76.4 mm, Berastegi 72.3 mm, Araxes 55.2 mm, Zizurkil 53.2 mm, Oiartzun 51.3 mm, Cerroja 41.7 mm). Horrez gain, arratsalde-gauean zaparrada handi-oso handiak bota zituen Gipuzkoako zenbait tokitan (Berastegi 33.8 mm/h, Aizarnazabal 30.6 mm/h, Eskas 26.5 mm/h, Araxes 25.6 mm/h, Zizurkil 25.1 mm/h, Oiartzun 22.1 mm/h, Ameraun 16.5 mm/h).

Taula 1: Azken urteetan abuztuan pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011
Deusto	29.0	25.7	27.5	53.6	4.4	36.6	26.1	68.4	8.8	32.5
Lasarte	91.0	81.3	43.8	142.8	41.9	106.1	67.6	56.7	36.9	39.3
Arrasate	37.9	57.9	16.9	35.2	14.8	69.7	13.9	20.5	14.2	27.6
Abetxuko	33.8	40.3	2.5	15.3	4.8	39.1	19.9	13.5	5.1	17.1
Párganos	48.1	29.0	0.2	26.2	1.5	64.2	5.7	4.4	12.0	11.9

Temperatura

Abuztua, oro har, oso beroa izan zen kantauri isurialdean eta beroa Mediterraneo isurialdean, 1981-2010ko denboraldia kontuan hartuz. Batez besteko temperatura kostaldean 21 °C ingurukoa izan zen eta Arabako Lautadan 19 °C ingurukoa, gutxi gorabehera ohiko batezbestekoa baino 1.1 °C altuagoa. Mende honetan, erdibideko posizioan aurkitzen da, 2003ko markatik urrun.

Jakina, egun beroak nagusitu ziren, baina ez ziren asko izan, hotzak tartekatu baitziren haien artean. Hilabetean zehar izandako bilakaerari dagokionez, azpimarratzekoak dira hilaren 7an eta 20an izandako bero handiko gertaerak eta hilabetearen azken txanpan temperaturak izandako beherakada.

Hain zuzen ere, hilaren 6an lehenengo abisu horia igorri zen muturreko temperatura oso altuengatik EAE osoan. Egun hartan neurtu ziren hilabeteko baliorik altuenak kantauriko bailaretan, bereziki Aiarako bailararen inguruan, eta zenbait estaziotan 40 °C-ren muga gainditu zen (Aranguren 41.1 °C, Saratxo 40.4 °C, Sodupe 40.3 °C, Galdakao 39.9 °C, Alegia 39.1 °C). Hurrengo egunean, itsasaldeko haizeari esker kostaldean temperatura jaitsi egin zen, baina barnealdean bero egiten jarraitu zuen (Saratxo 39.2 °C, San Prudentzio 39.2 °C, Estanda 38.5 °C, Arkauti 38 °C). Horrez gain, minimoak altuak izan ziren lurralde osoan, eta Mediterraneo isurialdean temperatura altu iraunkorren atalaseak gainditu ziren (Estanda 20.6 °C, Deustu 20.6 °C, Saratxo 20.3 °C, Arrasate 19.6



°C, Lasarte 19.8 °C, Etura 18.6 °C). Hurrengo egunetan, temperatura jaisten joan zen, batez ere kantauri isurialdean, baina 9an gora egin zuen iragate-zonan. Bertan, berriro ere, muturreko temperatura oso altuen atalaseak gainditu ziren, eta Ebro ondoko eskualdea gaindizetik gertu ibili zen (Zanbrana 37 °C, Espejo °C, Etura 36.4 °C).

Hilaren 19an beste abisu bat igorri zen muturreko temperatura oso altuengatik, bereziki kantauri isurialdean bete zen eta, zonalde horren barruan, kostaldean (Oleta 39.3 °C, Berriatua 38.4 °C, Galdakao 37.9 °C). Hurrengo egunean, temperatura are gehiago igo zen EAE osoan (Alegia 40.4 °C, Saratxo 39.7 °C, Oleta 39.5 °C, Oiartzun 38.7 °C, Moreda 38.2 °C). Horrez gain, Ellen depresioak eragindako fluxu iberiko iraunkorrak ez zion temperaturari asko jaisten utzi, ondorioz, kantauri isurialdean temperatura altu iraunkorren atalaseak ere gainditu ziren bi egunetan (Galindo 22.7 °C, Higer 22.3 °C, Mungia 21.4 °C, Derio 21.2 °C, Almike 20.6 °C, Behobia 20.5 °C, Zarautz 20.4 °C, Iurreta 20.2 °C).

Minimo absolutuak azkenengo bi egunetan neurtu ziren, iparraldeko adbekzio indartsuak eraginda, eta udazkeneko ohiko balioak neurtu ziren. Kostaldean izan ezik, gainerako tokietan 10 °C-tik jaitsi ziren minimoak, eta hau ez zen uztailaren erditik gertatzen. Hilaren 31n, 5 °C-tik jaitsi ziren Arabako toki askotan eta Iturrietako mendietan 1.6 °C neurtu ziren. Mende honetan abuztuan inoiz neurtutako balio baxuenak neurtu ziren Araba eta Bizkaiko mendialdean, eta baita Bizkaiko kostaldean ere.

Intsolazioa sasoi honetarako ohikoa izan zen, zertxobait altuagoa Donostian eta Gasteizen (215 eta 240 eguzki-ordu, hurrenez hurren), eta ia batezbestekoa Bilbon (180 eguzki-ordu).

Taula 2: Abuztuan, azken urteetan, neurtutako batez besteko temperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011
Deusto	21.3	21.2	21.6	20.4	21.9	21.5	20.5	20.6	21.9	20.9
Lasarte	20.7	20.2	20.5	19.9	20.5	20.3	19.2	19.6	21.3	20.2
Arrasate	19.8	19.4	19.8	19.5	20.0	20.3	18.1	18.9	21.0	19.5
Abetxuko	19.0	19.5	19.6	19.5	20.0	20.2	18.3	18.8	20.9	19.6
Párganos	20.9	21.1	21.1	20.8	21.6	21.1	19.9	20.3	22.2	22.0



Haizea

Ondo bereizitako bi egoera izan ziren hilabete honetako protagonistak. Lehenengoan, eta ohikoena, iparraldeko haizea ibili zen, bai brisa edo tokian tokiko haize moduan, iparraldeko edo ipar-ekialdeko haizearekin arratsaldetan; sinoptikoki iparra nagusi zen egoeretan ere bai, orduan ipar-mendebaldekoa nagusitzen zen egun osoan. Egun haietan haize-bolada gogorrak izan ziren, batez ere arratsaldetan, eta bereziki kostaldean eta Araba erdialdean (Moreda eta batez ere Ilarduia nabarmentzen dira). Iparraldeko haizeak hilaren 1etik 5era jo zuen, hilaren 14tik 18ra bitartean eta, gero, 20tik aurrera. Hilaren 28an eta 29an bolada oso gogor batzuk izan ziren kostaldeko zenbait tokitan.

Noizbehinka bada ere, hegoaldeko haizea ere ibili zen, eta hego-ekialdeko haizea nabarmendu zen hilaren 6tik 10era bitartean barnealdean; egun haietan haizeak tarteka mendebal/ipar-mendebaldetik jo zuen kostaldean. Hegoaldeko haizea hilaren 19an ibili zen berriro ere, orduan hego-mendebaldekoa, Britainiar uharteen parean zegoen Ellen izeneko depresioaren eraginez. Egun haietan haize-boladak oso gogorrak izan ziren, baina ez zuten 100 km/h-ko muga gainditu (Orduña 97.7 km/h).

Hilabeteko haize-boladarik indartsuenak hilaren 11ko arratsaldean Araba zeharkatu zuen ezegonkortasun lerro bati loturikoak dira. Ezegonkortasun lerroa iritsi aurretik Arabako zenbait tokitan ufada oso gogorrak izan ziren, bai haizeguneetan eta baita haizeguneak ez diren tokietan ere (Orduña 114.3 km/h, Moreda 102.3 km /h, Páganos 82.5 km/h).

Analisia

Abuztuaren 1etik 3ra

Abuztuko lehen egunetan eguraldia hezea izan zen, batez ere Kantauri isurialdean. Islandiako depresio batek aska bat sortu zuen goi-geruzan eta Atlantikoan gailur antiziklonikoa genuen; ondorioz, itsas fluxuen eraginpean egon ginen. Gainera, depresio horri lotutako fronte hotz batek EAE zeharkatu zuen

Abuztuaren 4tik 10era

Hilaren 4tik aurrera gailur antiziklonikoa Iberiar penintsularen gainean jarri zen eta Europa iparralderaino zabaldu zen. Egoera hark tenperaturaren igoera eragin zuen eta baxu termiko bat sortu zen Iberiar penintsularen barnealdean. Ezegonkortasuna handitu egin zen eta udako ekaitzak sortu ziren. Udako ekaitzek EAEn eragina izan zuen egun batzuetan, nahiz eta modu irregularrean izan.

Abuztuaren 11tik 12ra



Bi egun haietako eguraldia Portugal mendebaldean sortu zen goi-geruzan askatutako depresio batek baldintzatu zuen. Depresioak Iberiar penintsula zeharkatu zuen eta Bizkaiko golkotik irten zen. Zenbait lekutan prezipitazio handia izan zen.

Abuztuaren 13tik 17ra

Goi-geruzan aire masa hotz bat askatuta geratu zen berriro ere, baina kasu horretan ezberdin eragin zuen EAEn. Goi-geruzan askatutako depresioa Galizia ipar-mendebaldean kokatu zen, gero Kantauri ertzetik ibili zen eta gero ipar/ipar-ekialderantz egin zuen Britainiar uharteetarantz; han desegin zen. Egun haietan hodeiak nagusitu ziren kantauri isurialdean eta giroa nahikoa epela izan zen. Depresio EAETik gertuen egon zen unean, Britainia inguruan, orduan euri pixka bat egin zuen.

Abuztuaren 18tik 21era

Ezohiko egoera bat izan genuen egun haietan Atlantikoan. Depresio sakon bat hurbildu zen Britainiar uharteetara, hego-mendebaldeko fluxua indartuz. Iberiar penintsulan gailur bat sortu zen, eta bere ardatzak iparraldetik hegoaldera zeharkatzen zuen Penintsula. Horrez gain, Kyle ekaitz tropikalaren hondarrek Ozeano Atlantikoa zeharkatu zuten. Europara iristear zegoela, ziklogenesi leherkorreko prozesu baten ondorioz eta Britainiar uharteetan zegoen depresioari lotuta (bigarren mailako depresio bat izango balitz bezala) Ellen depresioa sortu zen (horrela izendatu zuen Irlandako meteorologia zerbitzuak). Prozesu hark EAEn oso modu ezberdinetan izan zuen eragina. Hego-mendebaldeko fluxuaren ondorioz tenperatura oso altuko egunak izan genituen. Bestalde, Ellen depresioari loturiko fronte batek eragin zigun hilaren 20an eta 21ean. Hilaren 20an eta 21ean trumoi-ekaitzak izan ziren, bereziki Araban eta Gipuzkoan.

Abuztuaren 22tik 27ra

Ellenek indarra galdu zuenean, ondorengo egun batzuetan zirkulazio zonalak izan genuen eta lurrazalean egoera antiziklonikoa, izan ere Atlantikoko antizikloia Frantziaraino zabaldua zegoen, EAE bere baitan hartuta. Lehen egunetan ipar-mendebaldeko haizea nagusitu zen eta tenperatura epela izan zen. Aldiz, hilaren 24an eta 25ean Atlantikoan depresio sakon bat sortu zen eta Britainiar uharteak zeharkatu zituen, joera erabat aldatuz, izan ere fluxua hego-mendebaldekoa izatera pasa zen. Horrela, behe-latitudeetatik aire masa beroa iritsi zitzaigun tenperatura igoaraziz. Nahiz eta egun haietan fronte batzuk Kantauri ukituz pasatu, oso ahulduta iritsi ziren; hodeiak izan genituen, baina euririk apenas egin zuen.

Abuztuaren 28tik 31ra

Joera erabat aldatu zen abuztuko azken egunetan. Atlantiko presio altuen eremua Islandiaraino luzatuta zegoen eta goi-geruzetan gailur oso indartsu bat zegoen. Bestalde, kontinentean presio baxuak genituen, Ipar itsasoan erdigunea



zuen depresio batekin. Horrela, iparraldeko fluxu indartsu bat sortu zen, eta barnean aire masa hotza zuen aska bat iritsi zen EAera (500 hPa-eko mailan -20 °C). Hainbat frontek eragin ziguten eta prezipitazioa ugaria izan zen, batez ere kantauri isurialdean. Horrez gain, tenperatura asko jaitsi zen. Azken egunean, goizaldean ezegonkortasuna ekialderantz mugitu zen eta eguraldia lasaia izan zen.






Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2020ko abuztuko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Temp. °C	Temp. max. °C	Temp. max.abs. °C	Temp. min °C	Temp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri- egunak
Deusto	21.3	25.9	36.9	17.9	11.5	0	29.0	5.8	7
Lasarte	20.7	26.2	38.4	16.7	12.3	0	91.0	22.2	10
Arrasate	19.8	27.7	38.9	14.3	8.6	0	37.9	18.0	8
Abetxuko	19.0	27.5	37.4	14.7	4.9	0	33.8	7.0	7
Páganos	20.9	28.1	35.8	14.7	6.9	0	48.1	19.1	5



Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak




Pilatutako prezipitazioa
 Temperatura minimoa
 Batez besteko tenperatura
 Temperatura maximoa




Prezิปitazioaren jokaera


Behatutako prezipitazioa
Precipitación observada




Prezิปitazio normala
Precipitación normala



Prezิปitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normala



Prezิปitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normala





Muturreko balioak

Eguneko temperatura minimo absolutua abuztuan

Izena	Data	Aurreko errekorra XXI. medea (°C)	Oraingo errekorra XXI. mendea (°C)	Estazioa jarritako urtea	
Iturrieta	2006/08/14	1.9	2020/08/31	1.6	1989
Gorbea	2007/08/18	5.5	2020/08/31	4.3	1992
Punta Galea	2005/08/24	12.4	2020/08/31	11.7	1992
Urkizu	2007/08/18	9	2020/08/31	8.5	1992
Gasteiz	2014/08/17	7.8	2020/08/31	7.5	1992
Orduña	2008/08/15	7.7	2020/08/31	7.6	1997
Urkiola	2017/08/12	6.9	2020/08/31	5.5	1998
Ordunte	2014/08/17	7.8	2020/08/31	7.1	1998
Altube	2010/08/31	4.7	2020/08/31	3.3	1999
Deusto	2014/08/17	12.5	2020/08/31	11.5	2001
Cerroja	2002/08/01	9.2	2020/08/30	8.3	2001
Matxinbenta	2011/08/28	8	2020/08/31	7.9	2002
Mañaria	2011/08/28	8.3	2020/08/31	7.8	2003
Párganos	2007/08/09	7.4	2020/08/31	6.9	2004
Espejo	2014/08/17	3.1	2020/08/31	2.8	2004
Beluntza	2014/08/17	6.2	2020/08/31	5	2008
Abetxuko	2002/08/26	5.9	2020/08/31	4.9	2008
Matxixako	2017/08/09	12	2020/08/30	11.7	2008
Roitegi	2014/08/17	2.9	2020/08/31	2.7	2008
Sarria	2014/08/17	4.7	2020/08/31	4	2011
Arteaga	2014/08/17	9.4	2020/08/31	8.8	2011
Iruzubieta	2014/08/17	8.2	2020/08/31	7.7	2012
Behobia	2014/08/17	11.9	2020/08/31	11.6	2013
Untzueta	2016/08/11	8.9	2020/08/30	8.4	2014
Kanpezu	2015/08/25	6.7	2020/08/31	6.4	2015
Almike	2005/08/24	13.5	2020/08/31	12.5	2016
Antoñana	2017/08/12	5.3	2020/08/31	4.4	2016
Eskas	2018/08/18	11.2	2020/08/31	9.3	2017
Tobillas	2017/08/12	4.3	2020/08/31	3.2	2017
Albaina	2017/08/12	4.2	2020/08/31	3.3	2017
Galdakao	2017/08/12	11.2	2020/08/31	10.5	2017



Muturreko egoerak

Abuztuan 18 abisu hori igorri ziren eta kausen arabera ondoren adierazten den moduan banatu ziren: 3 prezipitazio handiagatik, 1 haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan, 2 olatuen altueragatik nabigaziorako, 1 kostaldean inpaktuagatik, 3 tenperatura altu iraunkorragatik, 6 muturreko tenperatura oso altuengatik eta 2 baso-sute arriskuagatik.

- Hilaren 5ean, aire masa oso bero bat iritsi zen Kantaurira eta hilaren 6an 850 hPa-eko mailan tenperatura 24-25 °C ingurura iritsi zen. Lurrazalean, presio altuak Europara zabaldu ziren eta Iberiar penintsularen erdialdean baxu termikoak sortu ziren. Egoera sinoptiko harekin, hegoaldeko haizea nagusitu zen, behintzat Mediterraneo isurialdean. Hilaren 6a hilabeteko egunik beroena izan zen, nahiz eta tenperatura minimoak egun hartan oraindik oso altuak ez izan. Beroa zonalde guztietara hedatu zen, hala ere, bereziki Bizkaia barnealdean eta Aiarako bailaran izan zuen eragina. Hilaren 7a oraindik oso beroa izan zen kantauri barnealdeko zenbait tokitan, baina goizean mendebal/ipar-mendebaldeko haizea sartu zen kostaldean, ondorioz, bertan tenperatura zertxobait jaitsi zen. Tenperatura minimoak altuak izan ziren eskualde osoan. Hilaren 8an, tenperaturak jaisten jarraitu zuen ipar partean eta iragate-zonan, eta bero zakarra Ebro ibarrera mugatu zen; minimoak oraindik beroak izan ziren. Hilaren 9a aurreko egunekoaren antzekoa izan zen. Hilaren 10ean, aire beroa penintsularen hego-ekialdera mugitu zen eta kantauri isurialdean iparraldeko haizea nagusitu zen, arratsaldean hegoaldera zabalduz; Araban bero egin zuen, baina ez zen muturreko balioetara iritsi.

Estazioa	Tmax hilak 6 (°C)
Aranguren	41.1
Saratxo	40.4
Sodupe-Cadagua	40.3
Deusto	36.5
Abetxuko	35.5
Lasarte	34.3

Estazioa	Tmax hilak 7 (°C)	Tmin hilak 7 (°C)
Saratxo	39.2	20.3
San Prudentzio	39.2	18.7
Arrasate	38.9	19.6
Estanda	38.5	20.6
Etura	38.4	18.6
Oñati	38.4	17.9
Abetxuko	37.4	18.4
Lasarte	31.2	19.8
Deusto	25.6	20.6



Estazioa	Tmax hilak 8 (°C)	Tmin hilak 8 (°C)
Kanpezu	37.7	16.9
Moreda	36.8	20.3
Espejo	35.8	14.5
Zambrana	35.5	17
Abetxuko	33.2	14.7
Lasarte	27.1	18.4
Deusto	26.2	19.2

Estazioa	Tmax hilak 9 (°C)	Tmin hilak 9 (°C)
Zambrana	37	17.7
Espejo	36.6	15.8
Etura	36.4	16
Arkauti	36.3	16.2
Abetxuko	35.1	16.1
Lasarte	28	19.9
Deusto	26.3	20.1

Osteguna, hilak 6: Abisu Horia muturreko temperatura oso altuengatik 12etatik 19etara ordu lokala. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik barnealdean 18etatik 24etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 7: Abisu Horia muturreko temperatura oso altuengatik 12etatik 19etara ordu lokala. Abisu Horia temperatura altu iraunkorragatik 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik barnealdean 00etatik 21etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 8: Abisu Horia muturreko temperatura oso altuengatik Araban 12etatik 19etara ordu lokala. Abisu Horia temperatura altu iraunkorragatik Araban 00etatik 24etara ordu lokala.

Igandea, hilak 9: Abisu Horia muturreko temperatura oso altuengatik Araban 12etatik 19etara ordu lokala. Abisu Horia temperatura altu iraunkorragatik Araban 00etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 7an hego-ekialdeko haize-bolada oso gogorrak izan ziren Araba hegoaldean, bai haizeguneetan (Herrera, 90.3 km/h), eta baita haizeguneak ez diren tokietan ere (Arkauti, 84.7 km/h), bereziki arratsalde-gauean. Hegoaldeko haizea indartsua izan zen egunaren lehen orduetan kantauri isurialdeko zenbait tokitan ere (Jaizkibel, 74.5 km/h; Oiz, 73.4 km/h), baina goizean haizea mendebal/ipar-mendebaldera aldatu zen.

Ostirala, hilak 7: Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan 15etatik 21etara ordu lokala.

- Hilaren 11n eta 12an, Iberiar penintsularen erdialdean baxu termikoa sortu zen eta mendebaldean goi-geruzan askatutako depresio bat zegoen. Ezegonkortasuna areagotu egin zen eta hilaren 11n, egunaren erdiko orduetan ekaitzak garatu ziren Gaztela eta Leonen, eta arratsaldeko lehenengo orduetan Araba eta Bizkaira mugitu ziren. Gipuzkoan ez zuten eragin handirik izan, bertako kostaldean aktibatu ziren batzuk. Arabako Errioxatik, Arabako mendialdetik eta Arabako Lautadaren ekialdetik zaparrada lerro bat igaro zen eta prezipitazio ertaina utzi zuen, aipagarriena Paganos estazioan jasotako datua izan zen. Zaparrada hauekin batera haize-



bolada oso gogorak izan ziren ezegonkortasun lerroari loturikoak (Orduña, 114.3 km/h; Moreda, 102.3 km/h; Páganos, 82.5 km/h), eta hauek izan ziren hilabete osoko ufada indartsuenak. Egunaren bukaeran ekaitzak desaktibatu egin ziren, hala ere, gauean zaparrada ahulagoak iritsi ziren Iberiar penintsularen barnealdetik. Hilaren 12ko goizean atertu egin zuen, baina arratsaldeko lehen orduetan ekaitzak garatu ziren berriro ere, aurreko egunekoak baino bakanagoak. Horrela, modu irregularrean eragin zuten, baina mardulak ere izan ziren, eta esanguratsuena arratsaldeko azken orduetan Matxitxakon izandako zaparrada handia izan zen (16.9 mm/h). Zaparrada horiekin batera txingorra bota zuen zenbait lekutan (Zumarragan edo Kanpezun, adibidez).

Estazioa	Prezipitazioa ordubeteen hilak 11 (mm/h)	Ordua UTC
Páganos	14.1	15:00
Navarrete	12.4	15:10
Subijana	12.1	13:40

Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan hilak 11 (mm/10 minutuan)	Ordua UTC
Páganos	13.6	14:10
Navarrete	9.6	14:30
Subijana	8	13:00
Moreda	5.4	14:30
Espejo	5	13:10

Estazioa	Prezipitazioa ordubeteen hilak 12 (mm/h)	Ordua UTC
Matxitxako	16.9	17:50
Punta Galea	11.9	19:50
Abusu	11.7	15:00

Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan hilak 12 (mm/10 minutuan)	Ordua UTC
Matxitxako	11.3	17:10
Punta Galea	6.5	19:10
Kanpezu	6	15:10
Aranguren	5.9	19:50

Asteartea, hilak 11: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 21etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 12: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 21etara ordu lokala



- Hilaren 19an, Ellen izeneko depresio bat lurrazalean Britainiar uharteren parean kokatu zen eta Kantauri ekialdean hegoaldeko haizea nagusitu zen. 850 hPa-eko mailan, aire beroa Iberiar penintsularen ekialdean zabaldu zen EAeri eraginez, bereziki ekialdean, eta temperatura 22 °C ingurukoa izan zen. Horrela, hilaren 19an eta 20an, beroa egin zuen lurralde osoan, bereziki kantauri isurialdean. Lehenengo egun hura hilabete osoko beroena izan zen kostaldean, ez, ordea, gainerako tokietan. Hilaren 21ean, aire beroa erretiratu egin zen, eta jatorri atlantikoko aire-masa freskoago bat iritsi zen, nahiz eta goizaldean oraindik temperatura oso altua izan Araban.

Estazioa	Tmax hilak 19 (°C)
Oleta	39.3
Berriatua	38.4
Mungia	37.9
Arteaga	37.8
Alegia	37.7
Higer	37.7
Aranguren	37.6
Sodupe-Cadagua	37.6
Galindo	37.5
Oiartzun	37.3
Almike	37.3
Deusto	36.9
Lasarte	36.3
Abetxuko	33

Estazioa	Tmax hilak 20 (°C)
Alegia	40.4
Saratxo	39.7
Oleta	39.5
Berriatua	39.4
Sodupe-Cadagua	39.1
Oiartzun	38.7
Belauntza	38.6
Zizurkil	38.6
Araxes	38.6
Gardea	38.5
Ibai Eder	38.5
Lasarte	38.4
Abetxuko	34.9
Deusto	34.5

Asteazkena, hilak 19: Abisu Horia muturreko temperatura oso altuengatik 15etatik 19etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 20: Abisu Horia muturreko temperatura oso altuengatik 15etatik 19etara ordu lokala.

- Ellen izeneko depresio oso sakon bat Irlandako kostaldearen parean kokatu zen eta hurrengo egunetan olatu handiak eragin zituen Bizkaiko golkoan eta Kantauri itsasora hilaren 21ean iritsi zen (Donostiako buia, 3.625 m 18etan



ordu lokala). Horrez gain, mareak biziak izan ziren (hilaren 19an ilberria izan zen), ondorioz, itsasoak itsasertza gainditu zuen itsasgoren inguruan (arratsaldean estimatutako gainezka egiteko indizeak $I=6,1$ m eta $I_{max}=6.5$ m).

Ostirala, hilak 21: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 12etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 18etatik 20etara ordu lokala.

- Hilaren 29an, aska bat Bizkaiko golkoan barrena zabaldu zen eta ezegonkortasun handia eragin zuen Kantaurin egun hartan eta hurrengoan. Altueran aire hotza sartu zen eta itsasoko uraren temperatura 23 edo 24 °C-koa zen. Hilaren 29an, egunaren lehen zatian, zaparradak batez ere kostaldean bota zituen, baina arratsaldeak aurrera egin ahala eta aska Kantauri ekialderantz mugitzen zen heinean, kantauri isurialdearen barnealdera zabaltzen joan ziren eta trumoi-ekaitzak ere izan ziren. Zaparrada ertainak gero eta sarriago bota zituen eta tamaina txikiko txingorra egin zuen. Egunaren bukaeran zaparrada handiak bota zituen Gipuzkoako zenbait tokitan, eta oso handi batzuk ere bai, esanguratsuenak Aizarnazabal eta Berastegin botatakoak. Hilaren 30ean, egunaren lehen zatian, ipar partean euria egiten jarraitu zuen, hala ere noizbehinka baino ez zuen busti; hala ere, noizbehinka zaparrada handiren bat edo beste bota zuen. Arratsaldeko lehen orduetan euria egiten jarraitu zuen eta zaparrada mardulen bat ere bota zuen (Muxika, 8.5 mm/10 minutuan 14:20ean ordu lokala), baina arratsaldeak aurrera egin ahala atertzera egin zuen. Gertaera hartan prezipitazioa oso ugaria izan zen kantauri isurialdeko toki askotan; Araxes eta Zizurkil 60 mm baino gehiago pilatu ziren 24 orduan, eta Eskasen eta Berastegin 80 mm baino gehiago 24 orduan.

Estazioa	Prezipitazioa ordubetean, hilak 29 (mm/h)	Ordua UTC
Berastegi	33.8	20:30
Aizarnazabal	30.6	20:00
Eskas	26.5	21:40
Araxes	25.6	20:20
Zizurkil	25.1	20:10
Oiartzun	22.1	21:20
Ameraun	16.5	20:10

Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan, hilak 29 (mm/10 minutuan)	Ordua UTC
Aizarnazabal	11.6	19:30
Zizurkil	9	20:10
Oiartzun	8.9	21:20
Berastegi	7.9	19:40
Eskas	7.4	19:20



Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 30 (mm/h)	Ordua UTC
Behobia	15.6	08:40
Muxika	10.7	13:10
Añarbe	10.2	04:40

Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan, hilak 30 (mm/10 minutuan)	Ordua UTC
Muxika	8.5	12:20
Behobia	7.2	07:50
Oiartzun	6.4	08:10
Oleta	5.3	09:00

Larunbata, hilak 29: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Bizkaian eta Gipuzkoan 06etatik 24etara ordu lokala.

Igandea, hilak 30: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik 12etara ordu lokala.

- Hilaren 29an Bizkaiko golkoan iparraldeko fluxua oso indartsua izan zen, Irlandan zegoen antizikloi baten eta Ipar itsasoko depresio baten artean. Ipar-mendebaldeko haizeak zakar jo zuen (Punta Galea, 78.7 km/h; Matxitxako, 70.9 km/h) eta olatu handiak eragin zituen. Egunaren lehen partean, olatuen altuera adierazgarria 3 m ingurukoa izan zen Donostiako buian. Hilaren 30eko goizaldean 3 m ingurukoak izan ziren berriro ere, eta ondoren txikitzen joan ziren 2 m-tik behera kokatu arte arratsaldeko lehen orduetan.

Larunbata, hilak 29: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 24etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke:

http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatu gabe daude.